

GERIATRIA ETA GERONTOLOGIA AKTIBATUZ

ZAHARTZAROKO XX. KONGRESUA
NAFARROAKO GERIATRIA ETA GERONTOLOGIA ELKARTEAREN
XII. KONGRESUA

VITORIA-GASTEIZ | 2022
MAIATZAK 12 ETA 13,
EUROPA BILTZAR JAUREGIAN
PROGRAMA

ONGI ETORRI

Kide eta lagun agurgarriak:

Urtebetez gogor lan egin eta gero, estres fisiko eta psikologikoko karga handia izan ondoren, badirudi pandemiaren egoera normalizatzen ari dela, eta, hala, azkenean badaukagu aukera pertsona nagusiei arreta ematen modu diziplinartekoan lan egiten dugun profesional guztiei elkartzeko puntu bat eskaintzeko.


Horregatik, plazer eta ilusio handiz modu presentzianean egingo ditugu Zahartzarora Geriatria eta Gerontologia Euskal Elkartearen XX. Biltzarra eta Nafarroako Geriatria eta Gerontologia Elkartearen XII. Biltzarra; hitzordua Gasteizen izango dugu, 2022ko maiatzaren 12an eta 13an, Europa Biltzar Jauregian, **“Geriatria eta Gerontologia aktibatzen”** lemapean.

Prestakuntza eskaintza zabala duen programa prestatu dugu, bikaintasuna eta interesa bilatuz; zuen eskaerei erantzuna ematea eta eztabaida sortzea espero dugu.

Ezin dugu ahaztu populazio nagusiarentzat egiten dugula lan, eta, horregatik, pertsona nagusiek ere parte hartzea nahi izan dugu; hala, diziplina guztietan zientzia pertsona nagusien interesekin eta zahartzaroaren inguruko kezekin batu nahi izan dugu. Hala, zahartze osasungarria sustatzeko ikastaro bat diseinatu dugu, pertsona nagusientzat eta pertsona nagusiekin.

Gasteizek, pertsona nagusiekin adeitsua den hiriak, ateak parez pare irekiko dizkigu, beti egin izan duen moduan, kultura, gastronomia eta aisialdiko eskaintza zabala eginez.

Zuen zain egongo gara,



Pilar Sorando Fernández
Zahartzaroako Presidentea



Teresa Marcellán Benavente
SNGG-ko Presidentea

BATZORDE ANTOLATZAILEA

- Mertxe Molpeceres
- M^a Carmen Minguez
- Mónica Dieguez
- M^a Jose Martín
- Brígida Argote
- Pilar Sorando

ZAHARTZAROA-KO BATZORDEA

- Pilar Sorando
- Juanjo Calvo
- Iván Antón
- Mertxe Molpeceres
- Asier Arrizabalaga
- Izarne Lizaso
- M^a Carmen Minguez
- Mainer Ugartemendia
- Naiara Fernández (en funciones de secretaria)

BATZORDE ZIENTIFIKOA

- Pilar Sorando
- Juanjo Calvo
- Mainer Ugartemendia
- Izarne Lizaso
- Asier Arrizabalaga
- Iván Antón
- Naiara Fernández
- Teresa Marcellán
- Francisco Javier Alonso
- Olga Sala

SNGG-KO BATZORDEA

- Teresa Marcellán
- Sagrario Anaut
- Francisco Javier Alonso
- Alicia Beguiristáin
- Olga Sala
- J. Joaquín Roldán
- Abel Cedeño

EGOITZA

EUROPA BILTZAR JAUREGIA

Av. Gasteiz, 85,
01009 Vitoria-Gasteiz, Álava

Eraikin berezia, arkitektura berdearen ikonoa, hiriaren erdigunean kokatua: Europa Biltzar Jauregia ikuspegi jasangarria, erosotasun handiena eta XXI. mendeko ekitaldiek behar dituzten aurrerapen guztiak emateko diseinatuta dago. Eta Gasteizen egiten du, ingurumenarekiko errespetuaren ikur den hiri atsegina batean, eta horrek balio erantsi eta bereizgarria dakar.



Green Jauregia

Bere aurkezpen-gutuna aurrealdea estaltzen duen lorategi bertikala da, bertako ekosistemak erreproduzitzen aitzindaria, dituen 33.000 landare baino gehiagorekin. Baina Europa Jauregia bere fatxada baino askoz gehiago da: Passivhaus eraikina da, bere eraginkortasun energetikoagatik ospe handia jaso duena, besteak beste, Estatu Batuetako Eraikuntza Berdearen Kontseiluaren eskutik.

MAIATZAK 12, OSTEGUNA**16:30 – 17:00 AKREDITAZIOAK JASOTZEA****17:00–17:30 INAUGURAZIO EKITALDIA****AUDITORIO MARÍA DE MAEZTU**

- And. Gotzone Sagardui (Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburua)
- Emilio Sola jauna (Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatua)
- Gorka Urtaran jauna (Vitoria-Gasteizko alkatea)
- And. Pilar Sorando (Zahartzaroa - Euskal Geriatria eta Gerontologia Elkarteko presidentea)
- And. Teresa Marcellan (SNGG - Geriatria eta Gerontologiako Nafarroako Elkarte)

17:30–19:00 ARRETA INTEGRAL ETA INTEGRATUA BIZITZAREN AMAIERAN

Moderatzailea: Naiara Fernández Gutiérrez. IMQ Igorco. Bilbo.

AUDITORIO MARÍA DE MAEZTU

- Testuinguru etikoa bizitzaren amaieran. Marije Goikoetxea. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo
- Zaintzengunea. Pertsonen zaintza ikusaraztea eta prestigioa ematea bizitzaren azken fasean. Maider Grajales. Babespean. Gasteiz.
- Hiltzeko laguntza ematea. Itxaso Bengoetxea. Eutanasiaren arloko Berme eta Balorazio Batzordea. Galdakao.

MAIATZAK 13, OSTIRALA**09:00–09:30 MAHAI OROKORRA: BIZAN****J.M.BARANDIARAN ARETOA**

- Pilar Valle. Zerbitzu eta programa komunitarioen burua. Gasteizko Udala.
- Raquel Villarreal. BIZAN teknikaria. Gasteizko Udala.
- Alex Beltrán de Lubiano. BIZAN teknikaria. Gasteizko Udala.

09:30–11:30 2. MAHAIA: BERRIKUNTZA IRAUPEN LUZEKO ZAINTZAN ETA ARRETAN**AUDITORIO MARÍA DE MAEZTU**

Moderatzailea: Naiara Fernández. IMQ Igorco. Bilbo.

- Gizarea proiektua Iñaki Artaza Artabe. Araba Foru Aldundia. Gasteiz.
- Iraupen luzeko zaintza eta arreta pertsonalizatzen aurrera egiteko estrategiak. Lourdes Zurbanobeaskoetxea. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo.
- Zaintzen tokiko ekosistemak Gipuzkoan. Santiago Moriones. Gipuzkoa Foru Aldundia. Donostia.

09:30–11:30 1. MAHAIA: LAGUNTZAREN KALITATEA ADINEKOEN EGOITZETAN**SORGINETXE ARETOA**

Moderatzailea: Teresa Marcellan. Iruñeko Misericordia etxea. SNGGko presidentea.

- Egoitza zentroetan antzemandako kalitatearen neurketa. Rafael Sanchez-Ostiz. Idea. Nafarroa.
- Osasun arreta eta zaintzen kalitate adierazleak adinekoen egoitzetan. Arantza Lamas. Zorroaga egoitza. Donostia.
- Antimikrobianoen erabilera hobetzeko programa zentro sozio-sanitarioetan. Alberto Gil. Nafarroako Unibertsitate Ospitalea. PRAN. Nafarroa.

09:30-11:30 EGUNERATZEA GERIATRIAN

LA FLORIDA ARETOA

Moderatzailea: Javier Alonso. SNGGko Batzordea.

- Funtzionalitatearen balorazioa. Erortzea eta hausturak. Prebentziora bideratutako esku hartzeak. Alvaro Casas Herrero. Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko Geriatria Zerbitzua. Nafarroa.
- Pertsona nagusiaren polimedikazioa, eta diziplinarkeko lantaldeetatik lantzea. Alex Ferro. Matia fundazioa. Ospitale Farmaziako Zerbitzua. Donostia.
- Nahasmendu psikologikoak eta jarrera nahasmenduak demenzia duten pertsonengan. Maneiu klinikoa eta aukera terapeutikoak. Ariadna Besga. Santiago Ospitalea. Osakidetza Gasteiz.
- Zainketa aringarriak paziente ez onkologikoan. Saillkapena, maneiu klinikoa eta tratamendu farmakologikoa. Jordi Amblàs. Viceko Zentro Sozio-Sanitarioa. Bartzelona.

09:30-11:30 ERIZAINZAKO ZAINKETA OSAGARRIETAKO TEKNIKARIENTZAKO IKASTARO PRAKTIKOA (EZOT). KALITATEZKO ZAINKETAK.

GASTEIZ ARETOA

- Mendekotasunen bat duten adinekoen elikadura. Disfagia. Jarrera teknikak modu lagunduan elikatzeke. Testurak. Elikadura negatibismoa. Natalia Lema. Zorroaga egoitza. Donostia.
- Nola saihestu pertsona nagusiengan murrizketa fisikoak erabiltzea? Juan Carlos Martin Quicios. Cuidados dignos fundazioa. Gernika.

09:30-11:30 KOMUNIKAZIOEN AURKEZPENA

LA HECHICERA ARETOA

11:30 - 12:00 ATSEDENALDIA KAFA (MIRADOR ARETOA) – POSTERRA (HALL)

12:00-14:00 1. MAHAIA: BIZIBERRITZEA, KALITATEZKO ZAINZTA ESKAINTZEN JARRAITZEKO

AUDITORIO MARÍA DE MAEZTU

Moderatzailea: Maider Ugartemendia Yerobi. EHU. Donostia.

- Zentzumen anitzeko estimulazioa nahasmendu neurodegeneratibo arin-larriak dituzten pertsona nagusiengan. Ainara Antón. Txurdinagabbarri egoitza. Bilbo.
- Zauri konplexuen unitate baten esperientzia. Tratamendu berritzaileak eta kasu praktikoak. Paz Beaskoetxea. ESI Osakidetza. Barrualde-Galdakao.
- Pilak nola kargatu. COVID-19ak eragindako krisiari aurre egiteko estrategiak. Unai Arrieta. Psikologoa.

12:00-14:00 2. MAHAIA: BALORAZIO ETA ESKU HARTZE FUNTZIONALA KOMORBILITATEA DAUKATEN HELDUEKIN

SORGINETXE ARETOA

Moderatzailea: Asier Arrizabalaga. Uliazpi Fraisoro. Zizurkil.

- Gamifikazioa esku hartze eraginkor eta berritzaile gisa, ospitaleratutako pertsona nagusien gaitasun funtzionala hobetzeko. César Cuevas Lara. Nafarroako Osasun Zerbitzuko terapeuta okupazionala-OSASUNBIDEA.
- Estratifikazio funtzionala komorbilitatea daukaten heldu nagusiengan eta ariketa terapeutikoari erantzun dioten profilak identifikatzea. Iván José Fuentes Abolafio. Crevic. El Cubano Clínicas. Ikerkuntza Klinikoko Malagako Institutua-Elkartea.
- Fisioterapia etxean, mendekotasuna duten pertsona nagusiei zuzenduta: Fisitxean programa. Xabier García Rebollo. Eraberri.
- Jokabide sedentarioa heldu nagusien artean. Pau Farrés-Godayol. Viceko Unibertsitatea. Bartzelona.
- Ariketa terapeutikoa narriadura kognitibo arina daukan pazientearekin. Joan Ars Ricart. Parc Sanitari Pere Virgili. Bartzelona.

12:00-14:00 EGUNERATZEA GERIATRIAN: KARDIOGERIATRIAKO MAHAIA**LA FLORIDA ARETOA***Moderatzailea: Iván Antón. Eibarko Ospitalea.*

- Kardiogeriatría: geriatriaren eta kardiologiaren arteko kolaborazio historia bat. Carlos Rodríguez Pascual. Unibertsitate Ospitaleko Esparrua. Vigo.
- Bihotzeko gutxiegitasuna DSVIrekin: kardiologiaren eta geriatriaren ekarpenak. David Dobarro Pérez. Vigoko Unibertsitate Ospitaleko Esparrua.
- Hauskortasunaren balorazioa aorta estenosi larria daukaten pazienteengan. Rocío Menéndez Colino. La Paz Unibertsitate Ospitalea. Madril.

12:00-14:00 ERIZAINZAKO ZAINKETA OSAGARRIETAKO TEKNIKARIENTZAKO IKASTARO PRAKTIKOA (EZOT). KALITATEZKO ZAINKETAK.**GASTEIZ ARETOA**

- Jokabidearen nahasmenduaren kudeaketa praktiko ez-farmakologikoa adinekoen kasuan. Miriam Cerezal. Bermingham Ospitalea. Matia fundazioa. Itziar Palau. Bermingham Ospitalea. Matia fundazioa. Donostia.
- Zaindu zeure burua, zaintzeko! Zure jarrerak eta mugimenduak optimizatu eta zure osasuna hobetzeko gakoak. Natxo Ruiz de Alegria. Ergoactiv. Gasteiz.

12:00-14:00 4. MAHAIA: GIZARTE BAZTERKETAKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN ZAHARTZEA**LA HECHICERA ARETOA***Moderatzailea: Izarne Lizaso Elgarresta. EHU. Donostia.*

- Genero indarkeria emakume nagusiengan (bideo bidez). Paola Damonti. UPNA. Iruñea.
- Kolorea galdu duen ortzadarra. LGTBI+ pertsona nagusien errealitatea eta erronkak. Sejo Carrascosa. Ikusgune. Gasteiz.
- Zahartzea eta autismoa: zer dakigu? Gaur egungo eta etorkizuneko erronkak Autismoaren Espektriko-nahasmenean dituzten Pertsonen Familien Elkarteak. Javier Gómez García. APNABI. Bilbo.

14:00 - 15:30 LAN GOSARIA (MIRADOR ARETOA)**15:30-17:30 ERLAXAZIO ETA KOMUNIKAZIO TAILERRA. DESADOSTASUNAK KUDEATZEKO KOMUNIKAZIO TRESNAK****AUDITORIO MARÍA DE MAEZTU**

- Pilar Tazón Ansola. EHU. Donostia.

15:30-17:30 2. TAILERRA: TERAPIA EZ-FARMAKOLOGIKOAK**SORGINETXE ARETOA***Moderatzailea: Belén González Glaría y José Joaquín Roldán Larreta.*

- Musikoterapia. Isabel Laranjeira Gallardo.
- Animaliek lagundutako terapia. Iosu Méndez Sanchez. Josune Azpiroz Imaz. Biak Bat. Altsasu.
- Basale Stimulation. Aitziber Ibáñez de Gauna Garaigordobil. Raquel Guerrero Salado.

15:30-17:30 1. MAHAIA: INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIORAKO TEKNOLOGIA BERRIAK**J.M.BARANDIARAN ARETOA***Moderatzailea: Asier Arrizabalaga. Uliazpi Fraisoro. Zizurkil.*

- ENVITA: tresna digitalak bizi proiektuak zahartzaroan babesteko. Noelia Lopez. Envita.
- TRAK SILVER: fisioterapia digitaleko programa etxean, zahartze aktiboa sustatzeko. Jon Vital. Trak.
- Pertsona nagusiengan emozioak pizten errealitate birtualaren bitartez. Iñaki Aramburu. Jorge Maylin. Oroi.

15:30-17:30 BIGARREN MAHAIA: ARRETA GERIATRIKOAREN ORAINA ETA ETORKIZUNA

Moderatzailea: Pilar Sorando. Zahartzaroako Presidentea. Bilbo.

LA FLORIDA ARETOA

- ↪ Osakidetzan, espezialistak geriatrian integratzea. Alberto Manzano. Osasun Laguntzako Zuzendaritzako medikua.
- ↪ Santa Marina Ospitalea, koordinazio sozio-sanitarioaren erreferentziatzeko zentroa. Ramón Herrería. Santa Marina Ospitalea. Bilbo.
- ↪ Geriatria, geriatra batek emango lukeen laguntza mailetan. Javier Gómez Pavón. Gurutze Gorriko Ospitalea. Madril.

15:30-17:30 PARLAMENTU GERONTOLOGIKOA

GASTEIZ ARETOA

Moderatzailea: Fernando Gómez Busto. Gasteiz.

- ↪ Hauskortasunaren kontzeptuan behar den adostasunerantz aurrera egiten. Entitate baten bi ikuspegi desberdin eta osagarri? Eredu fenotipo biologikoa versus defizitak metatzeko eredia. Alvaro Casas. Geriatria Zerbitzua Nafarroako Unibertsitate Ospitalea. Osasunbidea. Nafarroa. Jordi Amblas. Geriatria Zerbitzua Viceko Zentro Sozio-sanitarioa. Bartzelona.
- ↪ Mende laurden barru. Adinekoen egoitzak Euskadin eta Nafarroan 2047. urtean. Prospekzio futurista. Alvaro Mosquera. Aspaldiko egoitza. Portugalete. Bizkaia. Juanjo Calvo. Zorroaga egoitza. Donostia. Gipuzkoa.
- ↪ Harremanetan zentratutako arreta versus pertsonarengan zentratutako arreta. Garapen praktikoa eta horietatik eratorritako berrikuntzak, pertsona nagusien egoitza batean. Brígida Argote. Lakua egoitza. Gasteiz. Araba. David Cabrero. San Jerónimo egoitza. Lizarra. Nafarroa

17:30-18:00 SARITUTAKO AHOZKO KOMUNIKAZIOEN AURKEZPENA. SARI BANAKETA AHOZKO KOMUNIKAZIOEI ETA POSTERREI

AUDITORIO MARÍA DE MAEZTU

18:00-18:45 ZAHARTZAROA: BATZAR NAGUSIA ETA HAUTESKUNDE PROZESUA

AUDITORIO MARÍA DE MAEZTU

IKASTAROA: ZAHARTZE OSASUNGARRIA SUSTATZEA 4 ORDUKO IRAUPENA

J.M.BARANDIARAN ARETOA

09:30-10:30 ↪ Fisika. Asier Arrizabalaga. Uliazpi Fraisoro. Zizurkil.

10:30 - 11:30 ↪ Kognitiboa. Izarne Lizaso. EHUKo Psikologia Fakultatea. Donostia.

12:00-12:45 ↪ Emozioak. Unai Arrieta. Psikologoa

12:45 - 13:30 ↪ Etorkizun osasungarriko nutrizioa. Naiara Fernández. IMQ Igurco. Bilbo.

13:30 - 14:00 ↪ Sortzailetasuna. Valvanera Manzanedo, Bizan sarearen arduraduna. Mavi Apellaniz, Bizan Arana. Tina Gutierrez, Bizan Aranbizkarra. Gasteizko Udala.

**DOAKO IKASTAROA. HERRITARREI IREKIA. IZEN EMATEKO:
BIZAN SAN MARTÍN 945161440 MAIATZAREN 12RA ARTE**

KOMUNIKAZIO ZIENTIFIKOAK

Batzarreen aurkezteko komunikazioen laburpena bi eratan egin daiteke. Lehenengoa www.zahartzarrea.equinoccioeventos.com webgunean aurkituko duzun online formularioaren bitartez eta bigarrena, formatu fisikoan, komunikazio horria Sekretaria Tekniko: Equinoccio Bidaiak - Ekitaldiak-eri, emailaz bidaliz mesa-6@reservasequinoccioviajes.com.

Komunikazioen laburpena bidaltzeko azken data: **2022ko apirilaren 18a.**

Batzorde zientifikoak aukeratuko ditu aurkeztuko diren komunikazioak. Geriatria eta Gerontologiako edozein arloetan nabarmenak diren ikerlanak aukeratuko dira, emaitzak deskribatzen ez dituzten lanak eta intentzio aurkezpen hutsak direnak baztertuz. Komunikazioen onarpen edo errefusak idatziz 2022ko apirilaren 30a baino lehenako komunikatuko zaie egileei. Gutxienez lehenengo sinatzaileak apirilaren 18a baino lehenago izena eman beharko du Batzarrean.

Antolakuntzak emango ditu ahozko aurkezpenetarako euskarri teknikoak eta posterrak ezartzeko leku eta euskarriak.



GASTEIZ 2022 KONGRESUKO BEKAK

12 beka eskaintzen dira bazkideentzat. Horietatik 9 Zahartzaroko bazkideentzat dira, eta 3 Nafarroako Geriatria eta Gerontologia Elkarteko bazkideentzat.

Bekek doako izen-ematea baino ez dute barne hartzen (ez da joan-etorririk edo egonaldirik barne hartzen).

Bekak eskatzeko epea apirilaren **18ra arte.**

Irizpideak

Posterra edo komunikazioa aurkezten duten pertsonei ematen zaie lehentasuna beketan.

IZEN-EMATEAK

IZEN EMATEKO KUOTAK	APIRILAREN 18RA ARTE	APIRILAREN 18TIK AURRERA
Bazkideak	150€	200€
Bazkideak ez direnak	180€	230€
EZOT Ikastaroa	60€	80€
Batzarren afaria: Zaldiaran Jatetxea	60€	
Bisita gidatua Gasteizko Erdi Aroko Hirigunean (plaza mugatuak)	Doakoa	

Kongresuan izena emateak honako hauek barne hartzen ditu: Kongresuan sartzeko akreditazioa. Saio guztietera joatea, tailerrak, bertaratze-ziurtagiria duen dokumentazioa. Laneko kafe- eta lunch-etenaldia.

* EZOT ikastaroan honako hauek sartzen dira: ikastarora sartzeko akreditazioa, bertaratze-ziurtagiria eta kafe-etena.

Izen emateak:

www.zahartzaraoa.equinoccioeventos.com

Telf: 943 21 65 80

HOTEL OFIZIALA

HOTEL NH CANCELLER AYALA ****	GAUEKO PREZIOA
Binakako logela	104,50€
Banakako logela	97,35€

Gela eta gau bakoitzeko prezioa. Gosaria eta BEZa barne

ANTOLATZAILEAK



BABESLEA



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

LAGUNTZAILEA

araba  álava
foru aldundia diputación foral

IDAZKARITZA TEKNIKOA

Equinoccio Viajes - Eventos

Email: mesa-6@reservasequinoccioviajes.com Telf.: 943 21 65 80

C/ Prim 29, San Sebastián 20.006 GIPUZKOA